**EBAZPENA, 2024KO URRIAREN 21EKOA, *EMAKUNDE* EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, *EMAKUNDE* EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA 2024-2027 ALDIRAKO.**

Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak garatzen duen dirulaguntzen jarduera aldez aurretik planifikatu beharko da plan estrategiko baten bidez. Plan horretan, helburuak, lortu nahi diren ondorioak, epea, aurreikusten diren kostuak, finantzaketa-iturriak eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak jasoko dira, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean agindutakoa betetzeko, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2015eko irailaren 18ko 01/15 Zirkularraren arabera, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen 2024-2027rako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar da.

Plan honek efikazia eta efizientzia handiagoak lortu nahi ditu, eta gardentasuna sendotu dagokion jarduera-eremuan. Ondorioz, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da. Izan ere, Emakundek dirulaguntzak baliatzen ditu erakundearen helburuak lortzeko, alegia: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatez eta zuzenbidez berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexu-diskriminazio oro deuseztatzea.

Plana egiteko, aztertu da zer interes publiko lortu nahi diren, eta interes horiek kontrastatu dira planaren indarraldirako aurreikusten diren baliabideekin; horretarako, erreferentziatzat hartu da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024ko Aurrekontu Orokorren Proiektua. Beraz, kontuan izan behar da plana aldatu daitekeela, baldin eta aurrekontu-proiektua aldatzen bada Legebiltzarrean onartu ondoren.
Gogoratu behar da, nolanahi ere, lege horrek dioela Planak izaera programatikoa duela, eta ez arauemailea, hau da, haren edukiak ez duela zuzenean sortzen ez eskubiderik ez betebeharrik, eta lau urteko indarraldia izango duela, epe luzeago baten beharra arrazoitzen ez bada.

Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntza-lerroak abiarazi behar dira, kontuan hartuta, besteak beste, zer aurrekontu dagoen ekitaldi bakoitzean.
Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzan, non txertatu behar da plan hori? Bada, planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia garatzen du, 2024ko otsailaren 13an onartu zena.

Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: asoziazionismoaren bidez emakumeen ahalduntzea sustatzea eta haiek aintzat hartzea; antolakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, horretarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartuz; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten antolakunde eta elkarteei lagunduz; azterlanak eta ikerketak sustatzea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Aipatutako 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritako araudia ikusita, beharrezkoa da lau urteko plangintza bat ezartzea, lege berriaren betekizunetara egokitua.

2024-2027 aldirako *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen lau urteko dirulaguntza-plan estrategiko honek aurrekontu-plangintzaren arabera 2024ko ekitaldirako dauden aurreikuspenak jasotzen ditu. Hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025, 2026 eta 2027 urteetarako, erabilgarri dauden baliabideak zenbatetsi dira, aipatutako legea erreferentziatzat hartuta. Kontuan hartu behar da, hala ere, plana doitu ahal izango dela aurrekontu-ekitaldi horietarako urteko aurrekontuen legea onartu ondoren. Behin legea onartuta, 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoari urtero onartzen den dirulaguntza-plan estrategikoa erantsiko zaio.

Azaldutakoaren ondorioz, eta kontuan izanik *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2006ko urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak, hau

**EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.–** Onar dadila *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, zeina eranskinean jasota baitago.

**BIGARRENA**.– Ebazpen hau argitara ematea dagokien bitarteko ofizialen bidez eta, gutxienez ere, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen web-orrian.

**HIRUGARRENA.–** Plana betetzeko urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan jasotakora egokituko dira.

**LAUGARRENA.–** Indarrik gabe uztea *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko urriaren 11ko Ebazpena, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena, eta *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundeko

zuzendariaren 2024ko abuztuaren 21eko Ebazpena, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen 2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa zuzentzen duena.

Vitoria-Gasteiz,

**MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.**

*Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

## ERANSKINA

## *EMAKUNDE* EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2027 ALDIRAKO.

1. **Sarrera.**

### 1.1 Aldez aurretikoak.

Plan estrategiko hau onartzen da Dirulaguntzen Araubidea onartzen duen 2023ko azaroaren 17ko 20/2023 Lege Orokorraren 6.1 artikuluan xedatutakoa betez. Artikulu horren arabera, Legearen 2. artikuluan aipatzen diren entitateek aurretik planifikatu behar dituzte emango dituzten dirulaguntzak, plan estrategiko baten bidez. Artikuluak dio, halaber, plan horretan zehaztu behar dela: zer helburu eta ondorio lortu nahi diren; zer epetan lortu behar diren; zenbateko kostuak aurreikusten diren; zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren, eta hori guztia, betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/2015 Zirkularrak ezartzen duenez, «EAEko Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzietako Salak), 2015eko urtarrilaren 21eko 48/2015 epaian, deusez deklaratu zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bat, "ez baitzetorren bat ordenamendu juridikoarekin, dirulaguntza-plan estrategikorik onartu ez zelako dirulaguntza ezarri aurretik"; alegia, ez zen bete Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluak (oraingo Dirulaguntzen Araubidea onartzen duen 2023ko azaroaren 17ko 20/2023 Lege Orokorraren 6.1 artikulua erreferentzia duena) xedatutakoa. Ondorioz, EAEko Administrazio Orokorreko sailek eta haien organismo autonomoek, dirulaguntza-programak sustatzen baitituzte, neurriak ezarri behar dituzte dirulaguntza-plan estrategikoak prestatzeko eta onartzeko; izan ere, halakorik egon ezean, deusez bihur daitezke dirulaguntza-deialdiak.»

Beraz, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztiek, bai eta dirulaguntza-programak sustatzen dituzten haien organismo autonomoek ere, beren dirulaguntza-plan estrategikoa onartu beharko dute. Bertan, dirulaguntzei buruzko jardun guztia jaso beharko dute eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu

Orokorretako programen aurrekontu-memorietan jasotako helburuak, ekintzak eta adierazleak hartu beharko dituzte kontuan».

Plan hau prestatzeko, jomuga diren helburu edo interes publikoak lortzeko zer bide dauden aztertu da eta planaren indarraldian (2024-2027 urteak) horretarako dauden baliabideak erkatu dira. Era horretan, bermatuko da efikazia eta efizientzia areagotzen direla eta jarduketa-eremu horretan gardentasuna indartzen dela.

Gainera, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen* testu bateginaren 5. artikuluaren k) eta m) letretan eta 27.3 artikuluan ezarritakoa betetzen da hala (testu bategin hori 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

**1.2. Izaera juridikoa**

Dirulaguntza Plan Estrategikoa kudeaketa-tresna programatikoa da, arau-mailarik gabekoa. Ondorioz, ez du zuzenean sortzen ez eskubiderik ez betebeharrik onuradun izan daitezkeenentzat; halaber, plana onartzeak ez dio eskubide eta betebeharrik sortzen Administrazioari. Plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntza-ildoak jarri beharko dira martxan, kontuan izanik, besteak beste, zer aurrekontu-baliabide dauden ekitaldi bakoitzean.

Beraz, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da plan hau. Izan ere, erakundeak, dirulaguntzak emanez, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzan, non txertatu behar da plan hau? Bada, planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia garatzen du, 2024ko otsailaren 13an onartu zena.

## 2. Plana zer erakundetan aplikatuko den eta zenbat iraungo duen.

*Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen berdintasun-politiken zeharkakotasunak dakarren espezifikotasuna eta erakundearen izaera juridikoa ikusita, komeni da plan estrategiko propio bat izatea.

Iraupenari dagokionez, hona zer dioen Dirulaguntzen Araubidea onartzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikuluak: «Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharrik sortzen. *Lau urteko indarraldia izango dute, non eta, barne hartzen dituzten jarduketen izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez den; egoera hori behar bezala arrazoitu beharko da dokumentuan bertan.»*

*Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen dirulaguntza-plan estrategiko honek Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2023ko abenduaren 21eko 21/2023 Legean jasotako aurreikuspenak jasotzen ditu. Hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025, 2026 eta 2027 urteetarako, erabilgarri dauden baliabideak zenbatetsi dira, aipatutako legea erreferentziatzat hartuta. Kontuan hartu behar da, hala ere, aurrekontu-ekitaldi horietarako urteko aurrekontuen legea onartu ondoren plana doitu ahal izango dela.

Lau urteko plan honek barne hartzen dituen hurrengo hiru urteetako bakoitzerako (2025, 2026 eta 2027), dagokion urteko aurrekontu-legea onartu ondoren, onartuko den urtez urteko dirulaguntza-plan estrategikoa erantsiko zaio 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoari.

## 3. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak

### 3.1 Ardatz estrategikoak

Sarreran adierazi bezala, *Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 1988ko otsailaren 5eko 2/1988 Legeak helburu hauek finkatzen ditu Emakunderentzat: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea eta sexu-bereizkeria oro deuseztatzea.

Halaber, 2024ko otsailaren 13an onartutako Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak berdintasunaren arloko lau jarduera-eremu jasotzen ditu: Gobernu ona, Emakumeen Ahalduntzea, Gizarte-antolamendu Justu, Berdinzale eta Iraunkorra eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzak.

Dirulaguntza Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: asoziazionismoaren bidez emakumeen ahalduntzea sustatzea eta haiek aintzat hartzea; antolakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea, eta, horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartzea; sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten antolakundeei eta elkarteei lagunduz, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; azterlanak eta ikerketak sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Ondorioz, ardatz estrategikoak helburu orokor eta esku hartzeko ildo horien barruan daude.

### 3.2 Norgehiagoka araubideko dirulaguntza-lerroak.

Dirulaguntzen Araubidea onartzen duen 2023ko abenduaren 21eko Lege Orokorraren 19. artikuluan ezartzen da zer prozedura dauden dirulaguntzak emateko. Ohiko prozedura lehiaketa bidezko norgehiagoka da, honela definituta: dirulaguntzak eta bestelako laguntzak emateko, erkatu egingo dira aurkeztutako lanak, eta lehentasun-hurrenkeran jarriko dira, oinarri arautzaileetan finkatutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Horrela, irizpideen arabera balorazio handiena lortu duten eskabideei bakarrik emango zaie laguntza.

Salbuespen gisa, baldin eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada, organo eskudunak dirulaguntzetarako jarrita dagoen diru-zenbateko orokor maximoa hainbana dezake dirulaguntzen onuradunen artean. Sistema horren arabera emango dira 3.2.4 ataleko diru-laguntzak.

Hauek dira 2024-2027 aldirako aurreikusitako norgehiagoka-araubideko dirulaguntzak:

- **Lankidetza instituzionalaren arloa**:
  Toki-erakundeei dirulaguntzak ematea, honako hauek egiteko: berdintasun-ebaluazioak, -diagnostikoak eta -planak; diagnostiko eta plan sektorialak edo/eta estrategikoak, eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-protokoloak eta haiei dagozkien ebaluazioak.

- **Azterlan-, dokumentazio- eta plangintza-arloa:**
  Pertsona fisikoentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketak egiteko.

- **Programa- eta prestakuntza-arloa:**
  Emakume-elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen asoziazionismoa eta parte-hartzea sustatzeko eremu guztietan.
  Enpresa eta entitate pribatuentzako dirulaguntzak, berdintasun-diagnostiko eta -planak egiteko.
  Emakunde saria: Sariaren helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuen jarduera azpimarratzea eta jendaurrean aitortzea.

- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:**

Elkarte edo antolakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen kontrako indarkeriazko portaerez ohartarazteko eta sentsibilizazioa lortzeko, eta sexu-esplotaziorako salerosketen biktima izan diren emakume eta haurrei arreta eta laguntza eskaintzeko.

Dirulaguntza-lerrorik sortu, aldatu edo ezabatuz gero, behar bezala jasoko dira plan honen egokitzapenean, aurrekontu-ekitaldi horietarako urteko aurrekontuen legea onartu ondoren.

### 3.3 Norgehiagokaz kanpoko araubideko dirulaguntza-lerroak.

Eranskinean, norgehiagokaz kanpoko araubideko dirulaguntza-lerro bakarra jasotzen da, 2024-2027 aldirako aurreikusia.

Dirulaguntzak emateko zer prozedura dagoen Dirulaguntzen Araubidea onartzen duen 2023ko abenduaren 21eko Lege Orokorraren 19. artikuluan ezarrita dagoenez, eta artikulu horrek dioenari jarraituz ohiko prozedura lehiaketa bidezko norgehiagoka denez, hortik segitzen da norgehiagokaz kanpoko prozedura salbuespenezkoa dela.

Sistema hori aurreikusi da 3.2.6 ataleko dirulaguntzetarako.

- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:**
  Pertsona fisikoentzako dirulaguntzak, Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala ikasteko Deustuko Unibertsitatean.

### 3.4. Datozen urteetarako aurreikusitako dirulaguntza izendunak:

*Emakunde* Emakumearen Euskal Erakundearen dirulaguntza plan estrategiko honek Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2023ko abenduaren 21eko 21/2023 Legean jasotako aurreikuspenak jasotzen ditu. Hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025, 2026 eta 2027 urteetarako, erabilgarri dauden baliabideak zenbatetsi dira, aipatutako legea erreferentziatzat hartuta. Kontuan hartu behar da, hala ere, plana doitu beharko dela aurrekontu-ekitaldi horietarako urteko aurrekontuen legea onartu ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2023ko abenduaren 21eko 21/2023 Legean jasotako dirulaguntza izendun hauek ematea aurreikusten da:

- Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Unibertsitateari, «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Berdintasun-eragileak» izeneko masterra egiteko. 2024-2025 ikasturtea: 29.676 euro.

- Dirulaguntza izenduna EHUko Udako Ikastaroak Fundazioari: 9.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Bertsolaritza Elkarteari, emakumeek bertsolaritzan parte har dezaten bultzatzeko: 6.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Argiri elkarteari, Irungo alarde mistoa antolatzeko: 16.000 euro. 2025. ekitaldirako eta hurrengoetarako, diru-zenbatekoa 20.000 eurokoa izatea aurreikusten da.

- Dirulaguntza izenduna «Oblatas del Santísimo Redentor» kongregazioari, emakume-salerosketako biktimak hautemateko eta artatzeko: 30.000 euro. 2025. ekitaldirako eta hurrengoetarako, diru-zenbatekoa 50.000 eurokoa izatea aurreikusten da.

Dirulaguntza izenduna KCDri, Zinema Ikusezinaren Jaialdia sustatzeko: 2.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Maite Albiz dokumentazio-zentroari, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako dokumentu-funtsak kudeatzeko eta herritarrak zerbitzatzeko: 20.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari, berdintasunari buruzko aholkularitza emateko: 20.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Askabide elkarteari, emakumeen salerosketako biktimak artatu ditzan: 70.000 euro. 2025. ekitaldirako eta hurrengoetarako, diru-zenbatekoa 100.000 eurokoa izatea aurreikusten da.

- Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen biztanleria-funtserako, “We decide” programarako (indarkeria matxistaren biktima izan eta desgaitasuna duten emakume eta nerabeentzako programa): 9.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen biztanleria-funtserako, indarkeriaren biktima izan diren emakume eta haurrentzako oinarrizko zerbitzuen programarako: 9.000 euro.

2025. urterako, Nazio Batuen biztanleria-funtserako partida bakar bat sortzea aurreikusten da; alegia, aurreko biak desagertuko dira: bai emakumeen aurkako indarkeriaren alorrekoa, bai desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren alorrekoa: 18.000 euro

- Dirulaguntza izenduna EUDELi, EAEko udalerrietan berdintasun-politikak garatzeko: 84.400 euro.
- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Emakume Enpresarien Federazioari, enpresa-eremuan emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak egiteko: 20.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Gasteiz On elkarteari, berdintasunaren arloan ikaskuntza- eta prestakuntza-prozesu bat bultzatzeko: 3.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Arizmendiarreta Fundazioari, genero-ikuspegia enpresako eredu inklusibo parte-hartzailean txertatzeko proiektua garatzeko (MIPE): 10.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari, «Kooperatiba-enpresa: ekonomia-eredua eraldatzeko funtsezko eragile eta gizarte jasangarriaren eragile; 2. fasea» izeneko proiektua garatzeko: 30.000 euro.

Dirulaguntza Plan Estrategikoan dirulaguntza izendun berririk sortu edo ezabatuz gero, behar bezala jasoko dira plan honen egokitzapenean eta eguneratzean, aurrekontu-ekitaldi horietarako urteko aurrekontuen legea onartu ondoren.

**3.2.1**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO**.

**AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.42100 2019/001482: 500.000 €**

**Helburua:** EAEko botere publikoen berdintasuneko jarduera bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea.

**Ekintza**: Dirulaguntza-deialdia kudeatzea, udalek, kuadrillek eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egin ditzaten, berdintasunerako planak egin eta ebaluatu ditzaten edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egin ditzaten.

**Adierazleak**:

- 36. Udal, kuadrilla, mankomunitate eta bi udal edo gehiagoko elkarteen zenbat proiektuk jaso duten dirulaguntza.
- 30. Zenbat udal txikik (5.000 biztanle baino gutxiagokoak) jaso duten dirulaguntza beren proiektuetarako.

**EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA**

**1. ARDATZA.- GOBERNU ONA**
**I-1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA**

**1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA**

I-1.2 Plangintza berria. Beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan propioak egiten dituzten eta plan horiek hedatzeko beharrezko baliabideak ematen dituzten EAEko erakunde publiko berrien kopurua handitzea.

**Adierazleak:**

- Berdintasunerako plana indarrean duten toki-entitateen kopurua, udalerrien tamainaren arabera eta plana gauzatzeko moduaren arabera (banaka edo modu elkartuan).
- Berdintasunerako plana duen udalerriren batean bizi den EAEko biztanleriaren ehunekoa.
- Plangintza egiteko prozesua hasia duten edo Europako Gutuna sinatuz bost urtean egiteko konpromisoa hartua duten toki-entitateen kopurua.

I-1.3 Berdintasunerako erakunde-plangintzaren kultura. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeak* ezarritako gutxieneko edukiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planetan txertatzen dituzten eta beren plangintza instituzionalaren kulturan berdintasuna sendotzen duten EAEko administrazio publikoen kopurua handitzea.

**2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK**

I-1.6 Berdintasunerako unitateak foru aldundietan eta udaletan. Beren egiturak gutxienez berdintasunerako entitate, organo edo administrazio-unitate bat egoteko egokitzen dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea, edo administrazio-egitura horiek langile espezializatu nahikoekin eta posizio organiko eta harreman funtzional egokiekin indartzea.

**Adierazleak:**

- Berdintasunerako unitatea eta teknikari espezializatu propioak dituzten toki-entitateen kopurua.

- Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean dihardute teknikariak dituzten udalen ehunekoa.

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO**. | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024.** | | **2025-2027** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Zenbatekoa € | % 100 | Diru-zenbatekoa € | % 100 |
| AURREKONTUA: **4. kapitulua:** | **500.000.** | **% 100** | **500.000.** | **% 100** |
| **Dirulaguntza-lerroa guztira:** | **500.000.** | | **500.000.** | |

**3.2.2**

| |
|---|
| **ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.** |
| **AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.45001 2019/001483: 400.000 €** |
| **Helburua: ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.**<br>**Ekintza:** Aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ekonomikoa emanez eta aitorpen soziala eginez, bultza egitea ENPRESEK eta entitate pribatuek berdintasun-politikak gara ditzaten.<br>- **Adierazleak:** Enpresei eta entitate pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko. |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:** III. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA |
| **ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEKO ETA EZARTZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK:**<br>**III-8. ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEA**<br>**17. ILDOA. ENPRESAK ETA ANTOLAKUNDEAK**<br>**III-8.1 Enpresetako berdintasun-planak**<br>Berdintasun-planek Euskadiko enpresa eta antolakundeetan duten eragina handitzea, eta plan horiek egin daitezen sustatzea, legez behartuta ez dauden kasuetan.<br><br>**III-8.2 Ordainsarien gardentasuna**<br>Antolakunde publiko eta pribatuen gardentasuna sustatzea ordainsarien arloan (ordainsarien erregistro-liburuak, soldata- edo ordainsari-auditoretzak edo beste formula batzuk).<br>**III-8.3 Kudeaketa aurreratua**<br>Berdintasuna balio-elementu gisa zabaltzea, antolakunde eta enpresa guztien kudeaketa aurreratuari begira.<br>**III-8.4 Lan-segurtasuna eta -osasuna**<br>Prebentzioaren kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea, lan-baldintza egokiak susta daitezen osasunean kalteak prebenitzeko eta, bereziki, enpresetan eta antolakundeetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko, bai eta laneko indarkeria mota guztietan eragiten duten genero-baldintzatzaileak ere.<br><br>**Adierazleak:**<br>- Emakunderen metodologiatik abiatuta berdintasun-diagnostikoak eta -planak egin dituzten enpresa eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.<br>- Berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera. |

**3 eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024.** | | **2025-2027** | |
| **Egitaraua: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 100 | Zenbatekoa € | % 100 |
| 4. kapitulua: | **400.000.** | **% 100** | **400.000.** | **% 100** |
| 7. kapitulua: | **0.** | **0.** | **0.** | **0.** |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira:** | **400.000.** | | | |

3.2.3

| EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK |
|---|
| **AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.45100 2019/000614. 2024:** 23.333 €. 2025eko konpromiso-kreditua: 46.666,00 € |
| **Helburua:** EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO ADITUEN EZAGUTZA SUSTATZEA, AZTERLANAREN, IKERKETAREN ETA PRESTAKUNTZAREN BIDEZ.<br>**Ekintza:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko ikerlanetarako beken deialdia kudeatzea.<br>**Adierazlea:**<br>- Aurkeztutako eskabide kopuruaren bilakaera<br>- Emandako ikerketa-beken kopurua<br>- Emandako beken onuradun zuzen modura berdintasun-arloan prestatutako emakume eta gizonen ehunekoa |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **1. ARDATZA - GOBERNU ONA**<br>**I-2 helburu estrategikoa: Administrazio-jardueran berdintasuna txertatzea.**<br>**1-2.1 Helburu espezifikoa. Estatistikak eta azterlanak: Pertsonei buruzko informazioaren bilketan, tratamenduan, analisian eta zabalkundean genero-ikuspegia kontuan hartzen duten estatistiken eta azterlanen ehunekoa handitzea.** |
| |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK** (HIRU). **2024:** 23.333 €. **2025eko** kreditu-konpromisoa: 46.666 €. | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024** | | **2025.** | |
| **Programa:: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | 1/3 | Diru-zenbatekoa € | 2/3 |
| 4. kapitulua: | **23.333.** | | **46.666.** | |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 69.999.00** | **23.333.** | | **46.666.** | |

3.2.4

| IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK |
|---|
| **AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.45200 2024/000468: 400.000 €. 2024: 300.000 €. 2025eko konpromiso-kreditua: 100.000 €** |
| **Helburua: 8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA**<br>**Ekintza**: 8.3. Emakume-federazio, -fundazio eta -elkarteei laguntzea jarduerak egin ditzaten berdintasuna lortzeko eta emakumeen autonomia sustatzeko eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko, DIRULAGUNTZEN urteroko deialdia kudeatuz eta aholkatuz.<br>**Adierazleak**:<br>- 100-140 Emakume-elkarteei emandako dirulaguntza kopurua.<br>- 100-250 Emakume-elkarteei diruz lagundutako proiektu kopurua.<br>- Emakumeen elkarteen % 35ek lortu dute dirulaguntza, elkarteen gidaliburuan erregistratuta dauden emakumeen elkarte guztiak kontuan hartuta. |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: II. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA** |
| **EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEKO ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTU ETA BALORATZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK**<br>**II-5. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA**<br>**11. ILDOA. PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA**<br>II-5.1 Emakumeen ekarpenak. Paradigma feministatik abiatuta, emakumeen ekarpenak nabarmentzea eta balioestea giza garapen jasangarriari dagokionez.<br>II-5.2 Emakume-elkarteak<br>EAEko emakume-elkarteen mugimenduak emakumeen eskubideak eta herritartasuna defendatzen, eraikitzen eta finkatzen eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen egiten duen lana indartzea eta sendotzea.<br>II-5.3 Ahalduntze-eskolak eta emakume-etxeak<br>Ahalduntze-eskolen eta emakume-etxeen lana sustatzea, bai eta ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziala bultzatzen, praktikatzen eta garatzen duten beste gune batzuen lana ere.<br>II-5.4 Antolakunde sozioekonomikoak eta politikoak<br>Gizarte-antolakundeetan, sindikatuetan, enpresetan, antolakunde kulturaletan eta politikoetan berdintasuna lortzeko konpromisoa hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.<br>II-5.5 Aisialdian eta kulturan parte hartzea. Emakumeek eta gizonek ikasteko baliabideetan eta programetan parte hartzen dutenean genero-arrakala murriztea, baita EAEn egiten diren aisialdi, arte, euskara, kultura eta jaietako jarduera guztietan ere. |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2024: 300.000 €. Konpromiso-kreditua: 2025: 100.000 €** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024** | | **2025** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 75 | Diru-zenbatekoa € | % 25 |
| 4. kapitulua: | **300.000.** | **% 100** | **100.000.** | |
| 7. kapitulua: | **0** | **0** | **0** | **0** |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 400.000,00** | **300.000** | | **100.000** | |

**3.2.5**

| GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. |
|---|
| **AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.45200 2024/000463: 300.000 €. 2024: 225.000,00. 2025eko konpromiso-kreditua: 75.000,00.** |
| **Helburua: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.**<br>**Ekintza:** DIRULAGUNTZA-deialdia kudeatzea, laguntzak emateko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioei; baita indarkeria horren inguruko sentsibilizazio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituztenei ere.<br>**Adierazlea:**<br>Zenbat dirulaguntza eman zaizkien emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten elkarteei eta erakundeei. |
| **BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ardatza, Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzak** |
| **6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA**<br>**6.1 Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.**<br>6.1.1 Gero eta gehiago izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko pertsonak eta hori sustatzen dutenak; batik bat, adingabeez arduratzen direnak, edo beren erantzukizun-esparruagatik adingabeentzako eredu direnak.<br>6.1.2 Irudi eta eduki mediatikoak kentzea, baldin eta adierazten badute pertsonak maila handiagokoak edo txikiagokoak direla sexuaren arabera, edota pertsonak sexu-objektu huts gisa aurkezten badituzte edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen badute, berriro ere biktimiza ez daitezen hedabideetan agertuta.<br>6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdinkeria oinarrizko elementu gisa eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa erakuts daitezen.<br>6.1.4 Desberdinkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.<br>6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek berdintasunik ezarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.<br>**6.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.**<br>6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.<br>6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.<br>6.2.3 Ez zaintzearekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.<br>6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, arreta berezia jarriz indarkeria mota berrietan.<br>6.2.5 Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea.<br>6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea. |

**6.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.**

6.3.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko gazteekin egiten den lana ugaritzea.

6.3.2 Emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioa sustatzea, eta praktika kulturalekin lotutako beste indarkeria-agerpen batzuena ere bai (adibidez, nahitaezko ezkontzak, behartutako abortuak eta antzutzeak eta ustezko «ohorearen» izenean egindako delituak).

6.3.3 Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioa handitzea.

6.3.4 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea.

**7. PROGRAMA: KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA**

**7.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea**

7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman.

7.1.2 Esku hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarriz.

7.1.3 Bizirik irten diren eta informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren beren itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

7.1.4 Edozein indarkeria-motaren aurrean zerbitzuak eta baliabideak ahalik eta goizen erabiltzen dituzten emakume biktimen kopurua areagotzea, arreta berezia jarrita zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenetan.

**Adierazleak:**

- Zenbat dirulaguntza eman zaizkien emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten elkarteei eta erakundeei.
- 40 Diruz lagundutako proiektuetatik, zenbat bete eta justifikatzen diren egokiro.
- 35 Zenbat entitate diren dirulaguntzen onuradun.

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
| **Dirulaguntza-lerroa: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2024.225.000 2019ko konpromiso-kreditua:** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024.** | | **2025.** | |
| **Egitaraua: 32230 EMAKUNDE** | Zenbatekoa € | % 75 | Zenbatekoa € | % 25 |
| 4. kapitulua: | **225.000.** | **% 75** | **75.000.** | **% 25** |
| **Dirulaguntza-lerroa guztira: 300.000.00** | **225.000.** | | **75.000.** | |

**3.2.6**

| |
|---|
| **SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DEL DIPLOMA DE EXPERTO EN INTERVENCIÓN EN VIOLENCIA SEXUAL DURANTE EL CURSO ACADÉMICO 2024-2025** |
| **AURREKONTUA: 2024 2054701000 1.32230.45100 2023/001237: 21.933,00 €. 2025eko konpromiso-kreditua: 7.311,00 €** |
| **9. helburua ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.**<br>**9.3. ekintza.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea, azterlan eta dokumentazioaren bitartez eta genero-ikerketa eta -prestakuntzaren bitartez<br>**Adierazlea:** Urteko deialdia: eskaera-kopurua |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA** |
| **4. ARDATZA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA**<br>**25. lerroa. Ikerketa eta informazioa.**<br>**VL11.1 Ikerketaren espezializazioa ▪**<br>Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakontzen duten azterlanak egin daitezen sustatzea, ondorioen aplikazio praktikoan arreta jarriz<br>**26. lerroa. Sentsibilizatzea eta prebenitzea**<br>**VL11.5. Indarkeria ez hain agerikoak**<br>Areagotzea hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta ondorioei buruzko sentsibilizazioa (sexu-indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa eta beste batzuk)<br>**27. lerroa. Gaikuntza**<br>**VL11.7. Administrazio publikoan diharduten profesionalak**<br>Indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematea —nahi eta nahi ez eta etengabe— biktimak hautematearekin, artatzearekin eta babestearekin lotutako langile guztiei, haurren eta gazteen eremuko langileei barne, eta halaber indarkeria-politikak eta -programak diseinatzen dituztenei. (Genero-ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza, intersekzionala eta kulturartekoa.)<br>**VL11.8. Operadore juridikoak eta judizialak**<br>Epailetzako, fiskaltzako eta gainerako eragile juridikoetako langile emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematen laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arlo horretan dituen eskumenak kontuan hartuta.<br>**VL11.9. Entitate pribatuetako profesionalak**<br>Ziurtatzea EAEko administrazio publikoetan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan zerbitzu espezifikoak ematen dituzten entitate pribatuetako langileek arlo horretako prestakuntza espezializatua jasotzen dutela.<br><br>**ADIERAZLEA:** Ikasturtean zehar, sexu-indarkerian esku hartzeko adituaren diploma egiteko eskabide-kopurua. |

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

<table>
<tr><td colspan="5">Helburu estrategikoa:</td></tr>
<tr><td colspan="5">Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO DIRULAGUNTZAK. 2024: 29.244,00 €.</td></tr>
<tr><td>Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</td><td colspan="2">2024</td><td colspan="2">2025</td></tr>
<tr><td>Programa: 32230 EMAKUNDE</td><td>Diru-zenbatekoa €</td><td>% 75</td><td>Diru-zenbatekoa €</td><td>% 25</td></tr>
<tr><td>4. kapitulua:</td><td>21.933.</td><td>% 75</td><td>7.311.</td><td>% 25</td></tr>
<tr><td>Dirulaguntza-lerroa guztira: 29.244.00.</td><td>21.933.</td><td></td><td>7.311.</td><td></td></tr>
</table>

**3.2.7**

| |
|---|
| **BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2024** aldia. 14.400 €. |
| **AURREKONTUA (2024) 2054701000 1.32230.45100 2019/001484** |
| **Helburua: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.**<br><br>**Emakumeek eta feminismoak zer ekarpen egiten duten ikusaraztea eta haiek bizitzako eremu guztietan parte har dezaten laguntzea.**<br><br>**Ekintza:** Emakunde sariaren deialdia:<br><br>**Adierazleak**:<br>- 1 Emakunde sariaren deialdia (2024). |
| **EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ESTRATEGIA 2030** |
| **2. ARDATZA:** EMAKUMEEN AHALDUNTZEA |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:** EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA<br>**11. esku-hartze lerroa:** Parte-hartze soziala eta politikoa<br>**12. esku-hartzea:** Lidergo feministak eta emakumeen arteko aliantzak berdintasunari begira |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2024 aldia. 14.400 €.** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2024** | | **2025** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 100 | Diru-zenbatekoa € | |
| 4. kapitulua: | **14.400.** | **% 100** | | |
| 7. kapitulua: | **0** | **0** | | |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 14.400,00** | **14.400** | | | |

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna — EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del — GOBIERNO VASCO

**ERANSKINA**
**2025EKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**
**EMAKUNDE- EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

Diru-laguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak garatzen duen dirulaguntzen jarduera aldez aurretik planifikatu beharko da Plan Estrategiko baten bidez. Plan horretan, helburuak, lortu nahi diren ondorioak, lortzeko behar den epea, aurreikusten diren kostuak, finantzaketa-iturriak eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak jasoko dira, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean agindutakoa betetzeko, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2015eko irailaren 18ko 01/15 Zirkularraren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu behar da.

Lege honetan aipatzen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
b) Administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna
c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) esleitutako arloen eremuan garatzen du jarduera. Dekretu hori Lehendakariaren uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuak aldatu zuen (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua aldatzen duena).

Esleitutako arloen eremua ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 4.1 artikuluan jasota dago. Horren arabera, Jaurlaritzaren Lehendakaritzari honako jardun-arlo hauek esleitzen zaizkio:

k) Generoaren aukera-berdintasunerako politika.
l) Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzendu eta koordinatzea.
m) Jaurlaritzak berdintasunaren arloan duen politika eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko eta diskriminazio mota oro desagerrarazteko politikak proposatzea eta gauzatzea.

Ondoren, uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuak epigrafe bakarrean biltzen ditu hiru arlo horiek:

> k) Berdintasun-politikak bultzatzea, aholkatzea, planifikatzea, koordinatzea eta ebaluatzea. emakumeak eta gizonak, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzkoak barne.

Horregatik guztiagatik, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluak adierazten du «Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea» administrazio-erakunde autonomoa Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita dagoela.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak onartutako egitura organiko eta funtzionalean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzen duen otsailaren 5eko 2/1988 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, bi gobernu-organotan egituratzen da: Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua eta Erakundeko Zuzendaritza, eta Idazkaritza Nagusia, kudeaketako administrazio-organo bat.

Ondorio horietarako, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Dirulaguntzen 2025eko Plan Estrategikoari helduko zaio hemen. Lehenik eta behin, adierazi behar da programatikoa dela, bere generoko gainerako planak bezala, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharrik sortzen. Planaren eraginkortasuna praktikan jartzearen mende dago, eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideen mende.

Kontuan hartu behar da, plangintzaren ikuspegitik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako jarduera-eremuetan, esparrua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak konfiguratzen duela nagusiki. Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak (2024ko otsailaren 13an onartua) lau jarduera-eremu aurreikusten ditu berdintasunaren arloan: gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria, eta, azkenik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Gainera, bete egiten dira martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako aurreikuspenak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena), bai eta sektore-eremuko araudian xedatutakoa ere (Estatukoa, Europakoa edo nazioartekoa).

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak, plangintza honen xede ez diren dirulaguntza izendunekin batera, Eusko Legebiltzarrak helburu zehatz baterako berariaz onartuta egoteagatik, hainbat ekimeni dirulaguntzen teknikaren bidez ekiteko baliabideak daudela jasotzen du. Baliabide horiekin, 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin genuen, dirulaguntzen ildoak abian jartzeko.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna — Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Hauek dira 2025erako aurreikusitako norgehiagoka-araubideko dirulaguntzak:

- **Lankidetza Instituzionalaren Arloa:**

  - Tokiko erakundeei dirulaguntzak ematea, ebaluazioak, diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, bai eta diagnostiko eta plan sektorialak eta/edo estrategikoak egiteko ere, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko protokoloak eta horien ebaluazioak barne.

- **Azterlan, Dokumentazio eta Plangintza Arloa:**

  - Pertsona fisikoentzako dirulaguntza, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ikertzeko.

- **Programa eta Prestakuntza Arloa:**
  - Emakume-elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen elkartegintza eta parte-hartzea sustatzeko eremu guztietan.
  - Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egin ditzaten.
  - Emakunde Saria: emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoen, publiko zein pribatuen, jarduna publikoki nabarmendu eta aitortzen duen saria.

- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:**
  - Elkarteentzako eta beste erakunde batzuentzako dirulaguntzak, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta horiek prebenitzeko, eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoei arreta eta laguntza emateko.

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzen lerro bakarra jasotzen da 2025erako.

- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:
  - Sexu-indarkerian esku hartzeko aditu-diploma (Deustuko Unibertsitatea) egiten ari diren pertsona fisikoentzako dirulaguntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean jasotako dirulaguntza izendun hauek ematea aurreikusten da:

- Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Unibertsitateari, «Emakumeen eta gizonen berdintasuna: berdintasun-eragileak» masterra egiteko. 2025-2026 ikasturtea: 37.010 euro.

- Dirulaguntza izenduna EHUko Udako Ikastaroen Fundazioari: 9.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Bertsolaritza Elkarteari, emakumeek bertsolaritzan parte har dezaten sustatzeko: 6.000 euro.

- Argiri elkarteari dirulaguntza izenduna, Irungo alarde mistoa antolatzeko: 20.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Congregación Oblatas del Santísimo Redentor elkarteari, salerosketaren biktima diren emakumeak hauteman eta artatzeko: 50.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna KCDri, zinema ikusezinaren jaialdia sustatzeko: 2.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Maite Albiz elkarteari, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin eta herritarrei arreta ematearekin lotutako dokumentu-funtsak kudeatzeko dokumentazio-zentroari: 20.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna Gazteriaren Euskal Kontseiluari, berdintasunaren arloan aholkularitza emateko: 20.000 euro.

- Askabide elkarteari dirulaguntza izenduna, salerosketaren biktima diren emakumeei arreta emateko: 100.000 euro.

- Nazio Batuen Biztanleria Funtsarentzako dirulaguntza izenduna: 18.000 euro.

- Dirulaguntza izenduna EUDELi, EAEko udalerrietan berdintasun-politikak garatzeko: 84.400 euro.

- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Emakume Enpresarien Federazioari, emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak egin ditzan enpresa-eremuan: 20.000 euro.

**3.2.1**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO PROTOKOLOAK EGITEKO**.

**AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.42100 2019/001482: 500.000 €**

**Helburua:** EAEko botere publikoen berdintasuneko jarduera bideratzeko jarraibide orokorrak ezartzea.

**Ekintza**: Dirulaguntza-deialdia kudeatzea, udalek, kuadrillek eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egin ditzaten, berdintasunerako planak egin eta ebaluatu ditzaten edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egin ditzaten.

**Adierazleak**:

- 36. Udal, kuadrilla, mankomunitate eta bi udal edo gehiagoko elkarteen zenbat proiektuk jaso duten dirulaguntza.
- 30. Zenbat udal txikik (5.000 biztanle baino gutxiagokoak) jaso duten dirulaguntza beren proiektuetarako.

**EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA**

**1. ARDATZA.- GOBERNU ONA**
**I-1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA**

**1. ILDOA. ARAUDIA ETA PLANGINTZA**

I-1.2 Plangintza berria. Beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan propioak egiten dituzten eta plan horiek hedatzeko beharrezko baliabideak ematen dituzten EAEko erakunde publiko berrien kopurua handitzea.

**Adierazleak:**

- Berdintasunerako plana indarrean duten toki-entitateen kopurua, udalerrien tamainaren arabera eta plana gauzatzeko moduaren arabera (banaka edo modu elkartuan).
- Berdintasunerako plana duen udalerriren batean bizi den EAEko biztanleriaren ehunekoa.
- Plangintza egiteko prozesua hasia duten edo Europako Gutuna sinatuz bost urtean egiteko konpromisoa hartua duten toki-entitateen kopurua.

I-1.3 Berdintasunerako erakunde-plangintzaren kultura. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legeak* ezarritako gutxieneko edukiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planetan txertatzen dituzten eta beren plangintza instituzionalaren kulturan berdintasuna sendotzen duten EAEko administrazio publikoen kopurua handitzea.

**2. ILDOA. ANTOLAKETA-BALIABIDEAK: BERDINTASUNERAKO UNITATEAK**

I-1.6 Berdintasunerako unitateak foru aldundietan eta udaletan. Beren egiturak gutxienez berdintasunerako entitate, organo edo administrazio-unitate bat egoteko egokitzen dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea, edo administrazio-egitura horiek langile espezializatu nahikoekin eta posizio organiko eta harreman funtzional egokiekin indartzea.

**Adierazleak:**

- Berdintasunerako unitatea eta teknikari espezializatu propioak dituzten toki-entitateen kopurua.
- Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean diharduten teknikariak dituzten udalen ehunekoa.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna | Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
| **Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO PROTOKOLOAK EGITEKO**. | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025.** | | **2026** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Zenbatekoa € | % 100 | zenbatekoa € | |
| AURREKONTUA: **4. kapitulua:** | **500.000.** | **% 100** | | |
| **Dirulaguntza-lerroa guztira:** | **500.000.** | | | |

3.2.2

| |
|---|
| **ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.** |
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45001 2019/001483: 400.000 €** |
| **Helburua: ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.**<br>**Ekintza:** Aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ekonomikoa emanez eta aitorpen soziala eginez, bultza egitea ENPRESEK eta entitate pribatuek berdintasun-politikak gara ditzaten.<br>- **Adierazleak:** Enpresei eta entitate pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko.<br>Enpresa eta erakunde pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua, berdintasun-planetan jasotako neurriak ezartzeko. |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:** III. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA |
| **ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEKO ETA EZARTZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK:**<br>**III-8. ANTOLAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN BERDINTASUNA GAUZATZEA**<br>**17. ILDOA. ENPRESAK ETA ANTOLAKUNDEAK**<br>**III-8.1 Enpresetako berdintasun-planak**<br>Berdintasun-planek Euskadiko enpresa eta antolakundeetan duten eragina handitzea, eta plan horiek egin daitezen sustatzea, legez behartuta ez dauden kasuetan.<br><br>**III-8.2 Ordainsarien gardentasuna**<br>Antolakunde publiko eta pribatuen gardentasuna sustatzea ordainsarien arloan (ordainsarien erregistro-liburuak, soldata- edo ordainsari-auditoretzak edo beste formula batzuk).<br>**III-8.3 Kudeaketa aurreratua**<br>Berdintasuna balio-elementu gisa zabaltzea, antolakunde eta enpresa guztien kudeaketa aurreratuari begira.<br>**III-8.4 Lan-segurtasuna eta -osasuna**<br>Prebentzioaren kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea, lan-baldintza egokiak susta daitezen osasunean kalteak prebenitzeko eta, bereziki, enpresetan eta antolakundeetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko, bai eta laneko indarkeria mota guztietan eragiten duten genero-baldintzatzaileak ere.<br><br>**Adierazleak:**<br>- Emakunderen metodologiatik abiatuta berdintasun-diagnostikoak eta -planak egin dituzten enpresa eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.<br>- Berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera. |

**3 eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025** | | **2026** | |
| **Egitaraua: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 100 | Zenbatekoa € | % 100 |
| 4. kapitulua: | **400.000.** | **% 100** | | |
| 7. kapitulua: | **0.** | **0.** | | |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira:** | **400.000.** | | | |

**3.2.3**

| EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK |
|---|
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45100 2025/000482. 2025:** 23.333 €. **2026ko konpromiso-kreditua**: 46.666,00 € |
| **Helburua:** EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO ADITUEN EZAGUTZA SUSTATZEA, AZTERLANAREN, IKERKETAREN ETA PRESTAKUNTZAREN BIDEZ.<br>**Ekintza:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko ikerlanetarako beken deialdia kudeatzea.<br>**Adierazlea:**<br>- Aurkeztutako eskabide kopuruaren bilakaera<br>- Emandako ikerketa-beken kopurua<br>- Emandako beken onuradun zuzen modura berdintasun-arloan prestatutako emakume eta gizonen ehunekoa |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **1. ARDATZA - GOBERNU ONA**<br>**I-2 helburu estrategikoa: Administrazio-jardueran berdintasuna txertatzea.**<br>**1-2.1 Helburu espezifikoa. Estatistikak eta azterlanak: Pertsonei buruzko informazioaren bilketan, tratamenduan, analisian eta zabalkundean genero-ikuspegia kontuan hartzen duten estatistiken eta azterlanen ehunekoa handitzea.** |
| |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK** (HIRU). **2025:** 23.333 €. **2026ko** kreditu-konpromisoa: 46.666 €. | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025** | | **2026.** | |
| **Programa:: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | 1/3 | Diru-zenbatekoa € | 2/3 |
| 4. kapitulua: | **23.333.** | | **46.666.** | |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 69.999.00** | **23.333.** | | **46.666.** | |

3.2.4

| IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK |
|---|
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45200 2025/000487: 430.000 €. 2025: 322.500 €. 2026ko konpromiso-kreditua: 107.500 €** |
| **Helburua: 8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA**<br>**Ekintza**: 8.3. Emakume-federazio, -fundazio eta -elkarteei laguntzea jarduerak egin ditzaten berdintasuna lortzeko eta emakumeen autonomia sustatzeko eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko, DIRULAGUNTZEN urteroko deialdia kudeatuz eta aholkatuz.<br>**Adierazleak**:<br>- 100-140 Emakume-elkarteei emandako dirulaguntza kopurua.<br>- 100-140 Irabazi-asmorik gabeko erakundeei emandako dirulaguntzen kopurua.<br>- 100-250 Emakume-elkarteei diruz lagundutako proiektu kopurua.<br>- 100-250 Irabazi-asmorik gabeko erakundeei diruz lagundutako proiektuen kopurua.<br>- Emakumeen elkarteen % 35ek lortu dute dirulaguntza, elkarteen gidaliburuan erregistratuta dauden emakumeen elkarte guztiak kontuan hartuta. |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: IV. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK** |
| **EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEKO ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTU ETA BALORATZEKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK**<br>**II-5. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA**<br>**11. ILDOA. PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA**<br>II-5.1 Emakumeen ekarpenak. Paradigma feministatik abiatuta, emakumeen ekarpenak nabarmentzea eta balioestea giza garapen jasangarriari dagokionez.<br>II-5.2 Emakume-elkarteak<br>EAEko emakume-elkarteen mugimenduak emakumeen eskubideak eta herritartasuna defendatzen, eraikitzen eta finkatzen eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen egiten duen lana indartzea eta sendotzea.<br>II-5.3 Ahalduntze-eskolak eta emakume-etxeak<br>Ahalduntze-eskolen eta emakume-etxeen lana sustatzea, bai eta ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziala bultzatzen, praktikatzen eta garatzen duten beste gune batzuen lana ere.<br>II-5.4 Antolakunde sozioekonomikoak eta politikoak<br>Gizarte-antolakundeetan, sindikatuetan, enpresetan, antolakunde kulturaletan eta politikoetan berdintasuna lortzeko konpromisoa hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.<br>II-5.5 Aisialdian eta kulturan parte hartzea. Emakumeek eta gizonek ikasteko baliabideetan eta programetan parte hartzen dutenean genero-arrakala murriztea, baita EAEn egiten diren aisialdi, arte, euskara, kultura eta jaietako jarduera guztietan ere. |

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA — Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2025: 322.500 €. Konpromiso-kreditua: 2026: 107.500 €** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025** | | **2026** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 75 | Diru-zenbatekoa € | % 25 |
| 4. kapitulua: | **322.500** | **% 100** | **107.500** | |
| 7. kapitulua: | **0** | **0** | **0** | **0** |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 400.000,00** | **322.500** | | **107.500** | |

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna | Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

**3.2.5**

| |
|---|
| **GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.** |
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45200 2025/000484: 300.000 €. 2025: 225.000,00. 2026ko konpromiso-kreditua: 75.000,00.** |
| **Helburua: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.**<br>**Ekintza:** DIRULAGUNTZA-deialdia kudeatzea, laguntzak emateko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioei; baita indarkeria horren inguruko sentsibilizazio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituztenei ere.<br>**Adierazlea:**<br>Zenbat dirulaguntza eman zaizkien emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten elkarteei eta erakundeei. |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ardatza, Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzak** |
| **4. ARDATZA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK**<br>**IV-11. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA INDARTZEA**<br><br>**25. lerroa. IKERKETA ETA INFORMAZIOA**<br>IV-11.1 Ikerketaren espezializazioa. Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakonduko duten azterlanak sustatzea, ondorioak praktikan aplikatzea azpimarratuz.<br><br>**26. ildoa.- SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA**<br><br>IV-11-4. Estereotipoak eta aurreiritziak. Emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta praktikak ezabatzen laguntzea.<br>IV-11.5. Hain agerikoak ez diren indarkeriak. Hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta horien ondorioei buruzko sentsibilizazioa areagotzea (sexu-indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetan eta beste batzuk).<br>IV-11.6 Indarkeriazko portaerak. Emakumeen aurkako indarkeria matxista erabili duten edo jokabide sexista problematikoak dituzten adin txikikoek, nerabeek eta helduek beren portaera berragertzea prebenitzea<br><br>**IV-12. – HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI EMATEN ZAION ERANTZUNA ESKU-HARTZEAREN ZENTROAN EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA AHALDUNTZEA JARRIZ GAUZATZEN DELA BERMATZEA.**<br><br>**28. lerroa. DETEKZIOA**<br>IV-12.1 Detekzio goiztiarra. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzio goiztiarra sustatzea gizarte-, osasun-, hezkuntza-, lan-, polizia- eta justizia-arretako baliabide publikoetatik, hirugarren sektoreko erakunde espezializatuekin lankidetzan. |

IV-12.2. Detekzio-mekanismoak. Biktimak edo biktima izan daitezkeenak egon daitezkeen arrisku-egoerak (behartutako ezkontzak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen, nerabeen eta neskatoen sexu-salerosketa eta/edo -esplotazioa, eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena) antzemateko eta egoera horietan jarduteko tresnak eta protokoloak prestatzea.

**29. linea. ARRETA INTEGRALA**

IV-12.3.- Arreta-eredua. Bermatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpenen biktima diren neskato, nerabe eta emakume guztiek lehentasunezko arreta, pertsonalizatua, doakoa, irisgarria, kalitatezkoa eta erreferentziazko hizkuntzan jasotzen dutela sistema publikoko zerbitzu eta prestazio guztietatik, haien egoera pertsonala, soziala edo administratiboa edozein dela ere.
IV-12.4- Informazioa eta orientazioa. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima guztiek beren eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazio eskuragarria eta orientazio espezializatua izan dezaten ahalbidetzea.
IV-12.6- Indarkeriaren zuzeneko beste biktima batzuei arreta ematea. Laguntza eta arreta sozial eta psikologiko espezializatua indartzea haur, nerabe, senide eta emakumeen aurkako indarkeria matxista gauzatzen den ingurune baten eraginpean dauden beste pertsona batzuentzat.

**30. linea. KONPONKETA**

IV-12.15- Kaltearen erreparazio kolektiboa. Kaltea modu kolektiboan konpontzeko neurriak areagotzea eta dibertsifikatzea. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaitzespen publikoa eta bizirik atera diren biktima guztien errekonozimendua barne.
IV-12.16- Lan komunitarioa. Biziraun dutenen berreskuratze- eta ahalduntze-prozesuetan komunitate-lana indartzea, bereziki berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteekin, talde feministekin, ahalduntze-eskolekin eta emakumeen etxeekin.

**Adierazleak:**
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan lan egiten duten elkarte eta erakundeei emandako dirulaguntzen kopurua.
- Behar bezala gauzatzen eta justifikatzen diren diruz lagundutako proiektuen kopurua.
- Dirulaguntzen erakunde onuradunen kopurua

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
| **Dirulaguntza-lerroa: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2025:225.000 2026ko konpromiso-kreditua: 75.000,00€** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025.** | | **2026.** | |
| **Egitaraua: 32230 EMAKUNDE** | Zenbatekoa € | % 75 | Zenbatekoa € | % 25 |
| 4. kapitulua: | **225.000.** | **% 75** | **75.000.** | **% 25** |
| **Dirulaguntza-lerroa guztira: 300.000.00** | **225.000.** | | **75.000.** | |

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

**3.2.6**

| |
|---|
| **SEXU-INDARKERIAN ESKU HARTZEKO ADITU-DIPLOMA EGITEKO DIRULAGUNTZAK 2025-2026 IKASTURTEAN** |
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45100 2025/000505: 21.933,00 €. 2026ko konpromiso-kreditua: 7.311,00 €** |
| **9. helburua ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.**<br>**9.3. ekintza.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea, azterlan eta dokumentazioaren bitartez eta genero-ikerketa eta -prestakuntzaren bitartez<br>**Adierazlea:** Urteko deialdia: eskaera-kopurua |
| **EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA** |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA** |
| **4. ARDATZA.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK**<br>**HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA BULTZATZEA**<br>**25. lerroa. Ikerketa eta informazioa.**<br>**VL11.1 Ikerketaren espezializazioa ▪**<br>Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakontzen duten azterlanak egin daitezen sustatzea, ondorioen aplikazio praktikoan arreta jarriz<br>**26. lerroa. Sentsibilizatzea eta prebenitzea**<br>**VL11.5. Indarkeria ez hain agerikoak**<br>Areagotzea hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta ondorioei buruzko sentsibilizazioa (sexu-indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa eta beste batzuk)<br>**27. lerroa. Gaikuntza**<br>**VL11.7. Administrazio publikoan diharduten profesionalak**<br>Indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematea —nahi eta nahi ez eta etengabe— biktimak hautematearekin, artatzearekin eta babestearekin lotutako langile guztiei, haurren eta gazteen eremuko langileei barne, eta halaber indarkeria-politikak eta -programak diseinatzen dituztenei. (Genero-ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza, intersekzionala eta kulturartekoa.)<br>**VL11.8. Operadore juridikoak eta judizialak**<br>Epailetzako, fiskaltzako eta gainerako eragile juridikoetako langile emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematen laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arlo horretan dituen eskumenak kontuan hartuta.<br>**VL11.9. Entitate pribatuetako profesionalak**<br>Ziurtatzea EAEko administrazio publikoetan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan zerbitzu espezifikoak ematen dituzten entitate pribatuetako langileek arlo horretako prestakuntza espezializatua jasotzen dutela.<br>**ADIERAZLEA:** Ikasturtean zehar, sexu-indarkerian esku hartzeko adituaren diploma egiteko eskabide-kopurua. |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| Helburu estrategikoa: | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO DIRULAGUNTZAK 2025-2026 IKASTURTEAN. 2025: 29.244,00 €.** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025** | | **2026** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 75 | Diru-zenbatekoa € | % 25 |
| 4. kapitulua: | **21.933.** | **% 75** | **7.311.** | **% 25** |
| **Dirulaguntza-lerroa guztira: 29.244.00.** | **21.933.** | | **7.311.** | |

**3.2.7**

| |
|---|
| **BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2025** aldia. 14.400 €. |
| **AURREKONTUA: 2025 2054701000 1.32230.45100 2019/001484** |
| **Helburua: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.**<br><br>**Emakumeek eta feminismoak zer ekarpen egiten duten ikusaraztea eta haiek bizitzako eremu guztietan parte har dezaten laguntzea.**<br><br>**Ekintza:** Emakunde sariaren deialdia:<br><br>**Adierazleak**:<br>- 1 Emakunde sariaren deialdia (2025). |
| **EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ESTRATEGIA 2030** |
| **2. ARDATZA:** EMAKUMEEN AHALDUNTZEA |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:** EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ESPARRU GUZTIETAN EGITEN DITUZTEN EKARPENAK AITORTZEA ETA BALIOESTEA<br>**11. esku-hartze lerroa:** Parte-hartze soziala eta politikoa<br>**12. esku-hartzea:** Lidergo feministak eta emakumeen arteko aliantzak berdintasunari begira |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

| **Helburu estrategikoa:** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Dirulaguntza-lerroa: BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2025 aldia. 14.400 €.** | | | | |
| **Organoa: EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA** | **2025** | | **2026** | |
| **Programa: 32230 EMAKUNDE** | Diru-zenbatekoa € | % 100 | Diru-zenbatekoa € | |
| 4. kapitulua: | **14.400.** | **% 100** | | |
| 7. kapitulua: | **0** | **0** | | |
| **Dirulaguntza-lerroa, guztira: 14.400,00** | **14.400** | | | |